BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

3486

AGINDUA, 2011ko ekainaren 22koa, Kulturako sailburuarena, 2011. urtean egiten diren edo hasten diren kategoria absolutuan nazioarteko kirol-lehiaketa ofizialetan parte hartzeko diru-laguntzak emateko arauak ezartzeko dena.

Agindu honen bidez, nazioarteko goi-mailako kirol-lehiaketa ofizialetan parte hartzea bultzatzeko laguntza-lerro bat jarri nahi du Kultura Sailak.

Eusko Jaurlaritzaren ustez nazioarteko goi-mailako kirol-lehiaketetan parte hartzeak berebiziko garrantzia dauka nazioartean euskal kirolaren presentzia ziurtatzeko, bai eta kirolaren praktika orokorra bultzatzeko ere.

Horrenbestez, beharrezkoa da kirol-jarduerek diru-laguntzak jaso ahal izateko baldintzak eta irizpideak finkatzea, bai eta laguntza horiek eskatzeko, izapidetzeko eta emateko arauak finkatzea ere.

Ondorioz, hauxe

EBATZI DUT:

1. artikulua.- Xedea.

1.- Agindu honetan, 2011. urtean egiten diren edo hasten diren kategoria absolutuan nazioarteko kirol-lehiaketa ofizialetan parte hartzeko diru-laguntzak emateko araubidea ezartzen da, artikulu honetan xedatutako eran.

Agindu honen ondorioetarako, nazioarteko kirol-lehiaketak ofizialtzat hartuko dira nazioarteko federazio baten egutegian, federazio europar batenean edo nazioarteko liga profesional baten egutegian sartuta dauden lehiaketak.

Lehiaketa horiek goi-mailako kirola sustatzera bideratuta egon behar dute. Ez da diru-laguntzarik emango partaidetzako kirola sustatzeko jardueretarako (jolas, aisia eta osasunerako kirola), ezta euskal kirol-selekzioek parte hartzen duten kirol-lehiaketetarako ere.

2.- 2011. urtean hasten diren ekitaldietarako ematen diren diru-laguntzak ezingo dira erabili urtealdi horretatik kanpoko gastuak ordaintzeko.

3.- Onuradunek konpromisoa hartuko dute kirol-lehiaketetan parte hartzearen ondorioz sortzen diren zabalkunde-moldeetan Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza agerrarazteko eta Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzari deialdia egiteko kirol-gertakariarekin loturiko ekitaldi publikoetan ager dadin, salbu eta ekitaldiaren ondoren ematen bada diru-laguntza, orduan gorabehera horren berri jaso beharko baitute laguntza ematen duen ebazpenaren jakinarazpenak sortarazitako dokumentazioan.

4.- Ezingo dituzte inola ere diru-laguntza hauek eskatu, eta, hortaz, deialditik kanpo geratuko dira, bi sexuen arteko berdintasuna bermatzen ez duten egitasmoek.

2. artikulua.- Aurrekontu-baliabideak.

1.- Deialdia agindu honen 7. artikuluan ezarritako lehiaketa-prozeduraren bidez ebatziko da eta guztira laurehun eta hogeita hamahiru mila bostehun (433.500) euro erabiliko dira.

2.- Artikulu honetan jaso den guztirako diru-zenbatekoa gehitu ahal izango da, eskatutako diru-laguntzen guztirako zenbatekoa kontuan harturik, Kultura Sailean beste laguntza-egitasmo batzuk bideratu ondoren aurrekontuak ahitu gabe geratu badira. Adierazitako gehikuntza diru-laguntzak ebatzi baino lehen egin behar da. Aipatutakoaren berri eman beharko da Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen ebazpen baten bitartez.

3. artikulua.- Erakunde onuradunak.

1.- Dagokien erregistroan legez sortu eta inskribatuta dauden eta egoitza soziala Euskadiko Autonomia Erkidegoan duten kirol-klubek, kirol-elkarteek eta helburutzat kirola duten nortasun juridikoko entitateek eskatu ahal izango dituzte agindu honetako diru-laguntzak. Kirol-federazioek ezingo dituzte laguntza hauek eskatu.

2.- Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrak edo erakunde autonomiadunek ezaugarri bereko beste laguntzaren batzuk eman izana dela-eta horiek itzultzeko edo zigortzeko prozesuren bat oraindik ere izapidetzen ari bada, prozesu hori amaitu egin beharko da onuradunei laguntzak eman edo ordaindu ahal izateko.

3.– Ezingo dute deialdi honetako diru-laguntzarik eskatu, kasuan kasuko zigorrak ezarritako epean, laguntza publikoak lortzeko zigor administratibo edo penalik duten erakundeek, ezta ere horretarako gaitasuna kentzen dien legezko debekurik dutenek ere. Halaber, ezingo dute diru-laguntzarik eskatu sexu-bereizkeria dela-eta zigor administratibo edo penalik duten erakundeek, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenaren indarrez.

4. artikulua.- Eskabideak.

1.- Agindu honetako diru-laguntzak jasotzeko eskabideak Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeari zuzenduko zaizkio (Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila, Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren Erregistro Orokor Zentralean edo erregistro osagarrietan aurkeztuko dira (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomiadunen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko apirilaren 29ko 72/2008 Dekretua, EHAAren 2008ko maiatzaren 30eko 102. zenbakian argitaratua), zuzenean edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritako bideetatik edozein erabiliz. Eskabidearekin batera, honako dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

a) Eskabide-inprimakia (I. eranskina) Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzan bertan eskura daiteke, edo Kulturako Lurralde Ordezkaritzetan. Erakunde eskatzailearen izenean eskabidea sinatzen duen pertsona fisikoak eskabidea egiteko baimena duela egiaztatzen duen dokumentua behar da.

b) Jardueraren gaineko txostena (II. eranskina). Honako alderdi hauei buruzko azalpen-txostena aurkeztu beharko da:

- Lehiaketa-eremua.

- Lehiaketan sartzeko modua: aurresailkapenik dagoen ala ez; aurreko txandarik badago, horien emaitzak egiaztatzea.

- Lehiaketa-egutegia, eskabideak egiteko unean publikoa bada. Bestela, argitara eman orduko bidaliko da egutegi hori Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzara.

- Dena delako proba programa olinpikoan sartuta dagoen ala ez.

- Kirol-lehiaketaren maila edo kategoria.

- Mugiarazitako kirolari eta langile teknikoen kopurua.

- Azken hamar urteotan nazioartean izandako parte hartzeak.

- Lehiaketa modua: jardunaldi kopurua eta non izango diren.

c) Diruz lagundu nahi den proba sartuta dagoen nazioarteko federazioaren, europar federazioaren edo liga profesionalaren egutegi ofiziala, bai eta ekitaldia antolatu duen entitatearen eta kasuan kasuko nazioarteko federazioaren, europar federazioaren edo liga profesionalaren harremanetarako kontaktu baten helbidea.

d) Diruz lagundu nahi den jardueraren diru-sarreren eta gastuen aurrekontu orekatua (III. eranskina).

e) Erakunde eskatzailearen IFZren kopia eta zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean dituela egiaztatzen duen agiria.

f) Hirugarrenaren altari buruzko dokumentu normalizatua (IV. eranskina). Eusko Jaurlaritzaren beste laguntzarik jaso baina beren helbideratze/banku datuetan aldaketarik sartu nahi dutenek «Hirugarrenaren datuetan aldaketak sartzeko eskabide orria» izeneko inprimaki normalizatua bete beharko dute (V. eranskina).

g) Pertsona juridikoaren legezko ordezkariaren NANren fotokopia, baita ordezkari horrek eskaera egiten duen egunean duen boterearen kreditazioa ere, bai ahalordearen eskrituraren kopiaren bidez bai, hala badagokio, dagokion organo eskudunak emandako ziurtagiriaren bidez.

h) Onuradunek konpromisoa hartuko dute Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzari deialdia egiteko kirol-gertakariarekin loturiko ekitaldi publikoetan ager dadin, salbu eta ekitaldiaren ondoren ematen bada diru-laguntza, orduan gorabehera horren berri jaso beharko baitute laguntza ematen duen ebazpenaren jakinarazpenak sortarazitako dokumentazioan.

i) Diruz lagundu nahi den jarduerari begira eskatu diren bestelako laguntzen zerrenda. Zein entitateri –pribatu edo publikoa– eskatu zaion adierazi beharko da, eta eskaera horren egoera zein den –ezetsiak, erantzunaren zain, emanak– eta diru-kopurua. Horrelakorik eskatu ez bada, hori adierazten duen dokumentua aurkeztu behar da.

j) Burututako jarduerei dagokienez, jada egindako gastuak justifikatzeko agindu honetan eskatzen diren dokumentuak aurkeztu beharko dira.

k) Erantzukizunpeko adierazpena, egiaztatzen duena erakunde eskatzaileak ez duela zigor administratibo edo penalik laguntza publikoak lortzeko, ezta ere horretarako gaitasuna kentzen dion legezko debekurik (VI. eranskina).

l) Espainiako kasuan kasuko federazioaren ziurtagiria, modalitateko horretako euskal kirol-federazioa Espaniakoan integratuta dagoela egiaztatzen duena, betiere kirol-modalitate horretako Espainiako federaziorik baldin badago.

m) Azken hamar urteetan nazioartean lehiatu diren aldiei buruzko ziurtagiria, dagokion nazioarteko federazioak emana.

2.- Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzak diru-laguntza emateko beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio osagarri guztia eskatu ahal izango du.

5. artikulua.- Eskabideak aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea hilabete batekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

6. artikulua.- Eskabidean egindako akatsak zuzentzea.

Agindu honen 4. artikuluaren arabera aurkeztutako eskabidea eta dokumentazioa aztertu ondoren, Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzak ikusten badu zerbait falta dela edo errakuntzak dituztela, erakunde interesdunari eskatuko zaio akatsa zuzendu dezan edo falta diren dokumentuak aurkez ditzan, eta horretarako hamar egun balioduneko epea emango zaio, dagokion jakinarazpena jasotzen den egunaren biharamunetik kontatuta. Era berean, ohartarazi egingo zaie ezen, epe hori igaro eta zuzenketarik egin ez bada, eskabidean atzera egin dutela ulertuko dela, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen ebazpen baten bidez.

7. artikulua.- Eskaerak aukeratzeko eta baloratzeko irizpideak.

Balorazio-batzordeak jasotako eskabideak aztertuko ditu eta jarraian aipatzen den baremoaren arabera ondoren zehazten diren alderdiak ebaluatuko ditu:

1.- Lehenengo fasea. Probaren maila baloratzea (40 puntu arte):

1.1.- Probaren lehiaketa-eremua: 10 puntu arte.

- Mundukoa: 10 puntu. Mundu-eremuko probatzat hartuko da, gutxienez hiru kontinentetako parte hartzaileak baditu.

- Kontinentekoa: 5 puntu.

1.2.- Lehiaketan sartzeko sistema: 10 puntu arte.

Lehiaketan sartzeko sailkapen-sistema bat badago: 10 puntu arte, finkatutako sistema horren zailtasun-mailaren arabera.

Taldekako kirola:

- Europako goren mailako lehiaketan parte hartzen dutenak: 10 puntu arte.

- Europako bigarren edo hirugarren mailako lehiaketan parte hartzen dutenak: 5 puntu arte.

- Lehiaketan beren kabuz parte hartzen dutenak: 0 puntu.

Kluben bitartez parte hartzen den banakako kirolak:

- Nazioarteko federazioak ezarritako aurresailkapen bidez edo nazioarteko federazioak baimenduta sartzeko era: 10 puntu arte.

- Nazio federazioak ezarritako aurresailkapen bidez edo nazio federazioak baimenduta sartzeko era: 5 puntu arte.

- Nor bere kabuz sartzeko era: 0 puntu.

1.3.- Proba programa olinpikoan sartuta egotea: 15 puntu arte.

- Proba olinpikoa: 15 puntu.

- Nazioarteko Batzorde Olinpikoak onarturiko modalitate ez-olinpikoa: 7,5 puntu.

- Nazioarteko Batzorde Olinpikoak onartzen ez duen modalitate ez-olinpikoa: 0 puntu.

1.4.- Nazioarteko partaidetzaren jarraitutasuna: 5 puntu arte.

- 7 parte hartze baino gehiago azken 10 urteotan: 5 puntu.

- 4tik 7ra parte hartze azken 10 urteotan: 2,5 puntu arte.

- 1etik 3ra parte hartze edo gutxiago azken 10 urteotan: 1 puntu.

Lehenengo fase honetan gutxienez 21 puntu lortzen ez duten eskabideak deialditik kanpo geratuko dira, eta ez dira bigarren fasean baloratuko.

2.- Bigarren fasea. Aurrekontu-faktoreak (60 puntu arte). Honako alderdi hauek baloratuko dira:

- Mugiarazitako kirolari eta langile teknikoen kopurua (30 puntu arte): 2 puntu pertsona bakoitzeko, 30 puntuko mugaraino.

- Lehiaketa-modua (30 puntu arte). Jardunaldi kopurua baloratuko da (10 puntu arte) eta proben jokalekurainoko distantzia (20 puntu arte).

- Europa: 5 puntu.

- Afrika, Amerika, Asia: 10 puntu.

- Ozeania: 20 puntu.

Lehiaketaren batean parte hartzeko kontinente batetik bestera mugitu behar bada, proben jokalekurainoko distantziaren arabera baloratu beharrekoa toki-aldaketa horiei dagozkien puntuen batez bestekoa izango da.

8. artikulua.- Kuantifikazioa.

1.- Laguntzen zenbatekoa zehazteko, banaketa proportzionalaren irizpidea erabiliko da. Alegia, agindu honen 2. artikuluan adierazitako diru-kopuru osoa eskabideek, aurreko atalean ezarritako irizpideak aplikatuta, balorazio fasean lortu duten puntuazioaren arabera banatuko da proportzionalki, betiere errespetatuta ezarritako gehienezko diru-kopurua edo, txikiagoa bada, eskatutako kopurua.

2.- Jarduera bakoitzeko eman litekeen kopurua ezin da ehun eta hogeita hamar mila (130.000) eurotik gorakoa izan.

3.- Futboleko Liga Profesionalen, Asobalen, ACBn eta Ruta UCI Pro-Teams gizonezkoen txirrindularitzan parte hartzen duten entitate onuradunek ezin izango dute jaso, oro har, agindu honetako aurrekontuaren % 40 gainditzen duen kopururik.

9. artikulua.- Laguntzen bateragarritasuna.

Agindu honetako diru-laguntzak bateragarriak dira beste erakunde publiko zein pribatuek helburu berbererako emandakoekin, betiere gain-finantzaketarik gertatzen ez bada. Gain-finantzaketarik badago, diru-laguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da, aurkeztutako aurrekontuaren orekaraino.

10. artikulua.- Ebazpena.

1.- Aurkeztutako eskabideak eta dokumentazioa aztertu ondoren, Balorazio Batzordeak –Kiroletako zuzendaria izango da batzordeburu, eta Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak izendatutako bi teknikari batzordekide, horietako bat idazkari– ebazpen-proposamen arrazoitu bat emango du, aurrez finkatutako esleipen-irizpideetan oinarrituta, eta Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeari aurkeztuko dio. Balorazio Batzordearen osaera Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da eta, batzordekideak nortzuk izango diren erabakitzeko, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.7 artikuluak xedatutakoa errespetatuko da.

Aldi berean, gai zehatzak aztertzeko Balorazio-batzordeen bileretan parte har dezakete, bertaratuen gehiengoak onartzen dituen eta jorratu beharreko gaiari buruz jantzita dauden pertsona guztiek, eta hitz egin bai baina botorik ezin izango dute eman.

2.- Egindako proposamenak ikusita, deialdia ebatziko du Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak, eta esleitutako diru-kopuruak zehaztuko ditu.

3.- Ebazpena jakinarazteko gehienezko epea sei hilabetekoa izango da, deialdia argitaratzen denetik kontatzen hasita. Epea igaro eta interesatuek ebazpenik jaso ez badute, eskabidea ezetsi dela ulertuko da, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44. artikuluan aurreikusi bezala, nahiz eta horrek ez salbuetsi lege horrek Administrazioari ebazpen adierazia emateko ezartzen dio betekizunetik.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, agindu honetako 6. artikuluan adierazitakoa gertatuz gero, erabakia hartzeko epea etenda geratuko da tramite hark behar duen beste denboraz, jakinarazpen-egunaren eta erantzuteko epearen arabera.

4.- Ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie esleipendunei, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, denek horren berri izan dezaten.

11. artikulua.- Ordainketa.

Diru-laguntzaren ordainketa bi zatitan egingo da: lehen zatian, diru-laguntzaren kopurutik ehuneko hirurogeita hamar ordainduko da, interesdunak diru-laguntza onartu duen edo onartu duela ulertzen den datatik aurrera zenbatzen hasita bi hilabeteren barruan; bigarrenean, gainerako kopurua ordainduko da, kirol-jarduera edo egitaraua bukatu eta emandako diru-laguntzaren diru kopuru osoa behar bezala justifikatu ondoren.

Aurreko paragrafoan xedatutakoari ezer kendu gabe, diru-laguntza ordainketa bakar batean ere eman ahal izango da, aurreko artikuluan aipaturiko Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen ebazpenaren ondoko bi hilabeteetan, betiere eskabidearekin batera aurkezten bada jardueraren aurrekontuaren exekuzioa egiaztatzen duen dokumentazioa, agindu honen 14. artikuluan xedatutako eran justifikatuta.

12. artikulua.- Onuradunaren betebeharrak.

Agindu honetako diru-laguntzen onuradunek azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Errege Dekretuaren 50.2 artikuluan ezarritako betebehar-araubidea konplitu beharko dute (Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua), eta, zehazkiago, betiere honako hauek:

a) Emandako diru-laguntza onartzea. Alde horretatik, diru-laguntza eman zaiela aditzera ematen duen jakinarazpena jaso eta hamabost egun balioduneko epean ez badiote diru-laguntzari idatziz espresuki uko egiten, onartu egin dutela ulertuko da.

b) Aurkeztu den aurrekontuan agertzen diren gastuak ordaintzeko erabiliko da diru-laguntza, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen ebazpenarekin bat.

c) Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari deialdi honen bidez jasotako diru-laguntzei buruzko informazioa ematea, eskatuz gero.

d) Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzak programaren exekuzioari buruz eskatzen dion informazio guztia eskuratzea.

e) Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzari deialdia egitea kirol-gertakaria aurkezteko egiten diren ekitaldi publikoetan ager dadin eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza toki ageri batean agerraraztea, salbu eta ekitaldiaren ondoren ematen bada diru-laguntza, orduan gorabehera horren berri jaso beharko baitute laguntza ematen duen ebazpenaren jakinarazpenak sortarazitako dokumentazioan.

f) Sexismorik gabeko hizkera erabiltzea, gizon eta emakumeen rolei dagokienez, eta erabilera estereotipatuak ez direla erabiliko bermatzea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak agintzen duenari jarraituz.

13. artikulua.- Programa kudeatzeko eskumena duen organoa.

Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritza da agindu honetako diru-laguntzen programa kudeatzeko eskumena duen organoa.

14. artikulua.- Diru-laguntzaren justifikazioa.

Entitate onuradunek honako dokumentazioa aurkeztu beharko dute Kultura, Gazteria eta Kirol Sailburuordetzan, diruz lagundutako jarduera –edo hala badagokio, partaidetza– amaitu eta handik hiru hilabeteko epean:

a) Diru-laguntza emateko ezarritako baldintzak betetzeari buruzko txosten zehatza, egindako jarduerak eta lorturiko emaitzak adierazita.

b) Egindako gastuen jatorrizko ziurtagiriak edo fotokopia konpultsatuak, emandako diru-laguntzaren kopuruaren adinakoa.

c) Diru-laguntza emateko ebazpenean jarritako baldintzen arabera, Kultura Sailaren babesa berariaz jasotzen duen dokumentazio guztiaren aleak (dokumentu grafikoak, fotografikoak edo ikus-entzunezkoak).

d) Ekitaldian parte hartzeak izan duen kostu-kontuen behin betiko balantzea, diru-sarrera eta gastu guztiak adierazita; bereziki jaso beharko dira helburu berarekin eskuratutako beste laguntzak, eskabideak aurkezteko unean haien eraginkortasunaren berri ez baldin bazegoen.

15. artikulua.- Likidazio-ebazpena.

Diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira –betiere diru-laguntzaren xedea bete bada– edo beste erakunde publiko zein pribatuetatik beste laguntzarik jaso bada, laguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango da. Horretarako, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak kitapen-ebazpena emango du esleitutako diru-laguntzaren zenbatekoa doitzeko.

16. artikulua.- Ez-betetzeak.

1.- Hauek izango dira ez-betetzeak:

a) Jasotako diru-laguntza osoa edo zati bat agindu honetan adierazitako jarduerez bestelakoetan erabiltzea.

b) Agindu honetan ezarritako betebeharrak edo, hala badagokio, laguntza ematerakoan ezartzen direnak ez betetzea.

c) Diru-laguntzaren likidazioa egiteko ebazpenean adierazitako zenbatekoa epearen barruan ez itzultzea (hala badagokio).

d) Beste xedapenen batek izaera orokorrez ezarritako beste edozein obligazio betetzen ez denean.

2.- Ez betetzeren bat gertatuz gero, jasotako zenbatekoak eta legezko interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko zaizkio, betiere azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren eta abenduaren 17ko 689/1991 Dekretuaren arabera (hurrenez hurren, Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua eta Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorren pentzutan ematen diren diru-laguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.- Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, bere aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Kulturako sailburuari hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo bestela administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bigarrena.- Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sortuko ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko ekainaren 22a.

Kulturako sailburua,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.

I. ERANSKINA / *ANEXO I*
DIRU-LAGUNTZARAKO ESKABIDEA / *SOLICITUD DE SUBVENCIÓN*

NAZIOARTEKO GOI- MAILAKO KIROL-LEHIAKETETAN PARTE HARTZEA FINANTZATZEKO 2011KO DIRU-LAGUNTZAK
SUBVENCIONES PARA FINANCIAR LA PARTICIPACIÓN EN COMPETICIONES DEPORTIVAS INTERNACIONALES DE ALTO NIVEL CORRESPONDIENTES AL AÑO 2011

PERTSONA JURIDIKOAREN DATUAK / *DATOS DE LA PERSONA JURÍDICA*:

Pertsona juridikoaren izena / *Denominación de la persona jurídica*: .....

Euskal Herriko kirol erakundeen erregistroko inskripzio-zenbakia, hala badagokio
En su caso, n.º de inscripción en el registro de entidades deportivas del País Vasco .....

Inskripzio data / *Fecha de inscripción* .....

IFZ edo NAN / *NIF o DNI*: ..... Helbidea/*Dirección*: .....

Posta-kodea / *Código postal*: .....

Herria/*Localidad*: .....

Tel./*Tfno.*: .....

Faxa/*Fax*: .....

Posta elektronikoa / *Correo electrónico (e-mail):* .....

ORDAINKETARAKO BANKETXEA/AURREZKI KUTXAREN DATUAK
DATOS BANCARIOS O DE LA ENTIDAD DE AHORRO PARA EL LIBRAMIENTO DE PAGOS

Banketxea edo aurrezki kutxa / *Banco o Entidad Bancaria* ☐☐☐☐

Agentzia/*Agencia* ☐☐☐☐

KD/*DC* ☐☐

Kontu zk. / *N.º cuenta* ☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐

PERTSONA JURIDIKOAREN LEGEZKO ORDEZKARIAREN DATUAK
DATOS DEL REPRESENTANTE LEGAL DE LA PERSONA JURÍDICA

Izen-deiturak / *Nombre y apellidos*: .....

..... NAN/*DNI*: .....

Helbidea/*Dirección*: .....

Posta-kodea / *Código postal*: ..... Herria/*Localidad*: .....

Tel./*Tfno.*: ..... Faxa/*Fax*: .....

Posta elektronikoa / *Correo electrónico* (e-mail): .....

KIROL-JARDUERARI BURUZKO DATUAK / *DATOS DE LA ACTIVIDAD DEPORTIVA*

Jardueraren izena / *Denominación de la actividad* .....

.....

Jarduera bere egutegi ofizialean jaso duen Nazioarteko Federazio, Europako Federazio edo Nazioarteko Liga Profesionalaren izena eta kontakturako datuak / *Denominación y datos de contacto de la Federación Internacional, Federación Europea o Liga Profesional de carácter internacional que ha incluido en su calendario oficial la actividad*: .....

.....

.....(e)n, 2011ko .....ren .....(e)(a)n
En ....., a ..... de..... de 2011

Izen-deiturak / *Nombre y apellidos:* ..... NAN/*DNI* .....

Izenpea/*Firma*

Eskabidea izenpetzen duenak eta eskaera egiten duenak pertsona bera izan beharko du, eta entitatearen legezko ordezkaria izan.
El/La firmante de la solicitud habrá de coincidir con el/la solicitante de la misma que deberá ser quien ostente la representación legal de la entidad.

ENTITATE ESKATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

1.- Entitateari buruzko agiriak (1):

a) Eusko Jaurlaritzako Kirol Erakundeen Erregistroan izena emanda ez dauden entitateen kasuan, eratze-eskritura, estatutuak eta dagozkion erregistro publikoetan izena emanda dagoela egiaztatzen duen agiria.

b) Pertsona juridikoaren legezko ordezkariaren NANaren fotokopia eta lege-ahalmena duela egiaztatzen duen ziurtagiria, ahalordetze agiriaren bidez edo, hala badagokio, dagokion organoak egindako egiaztagiriaren bidez.

c) IFZren fotokopia.

d) 1. puntuan eskatutako dokumentazioaren ordezko aitorpena (2).

e) Zerga eta Segurantza Sozialeko zorrak kitatuta dituela egiaztatzen duen ziurtagiria (3).

f) Erakunde eskatzaileak ez duela zigor administratibo edo penalik laguntza publikoak lortzeko, ezta horretarako gaitasuna kentzen dion legezko debekurik ere, aitortzen duen zinpeko deklarazioa (VI. eranskina).

g) Espainiako kasuan kasuko federazioaren ziurtagiria, modalitateko horretako euskal kirol-federazioa Espainiakoan integratuta dagoela egiaztatzen duena.

h) Zein kirol-taldetan dagoen:

☐ LFP; ☐ ASOBAL; ☐ ACB; ☐ UCI Pro-Teams gizonezkoak.

2.- Jarduerari buruzko dokumentazioa:

a) Jarduerari buruzko memoria. Gutxienez II. eranskinean jasotzen diren gaiak azaldu beharko dira.

b) Azken hamar urteetan nazioartean lehiatu diren parte hartzaileen kopuruari buruzko ziurtagiria, dagokion nazioarteko federazioak emana.

c) Jardueraren diru-sarreren eta gastuen aurrekontu orekatua, III. eranskineko ereduaren arabera (4).

d) Xede berberaz eskatutako beste diru-laguntzen zerrenda eta egoera (5).

e) Entitate eskatzailearen organo eskudunaren konpromisoa, kirol-lehiaketetan parte hartzearen ondorioz sortzen diren zabalkunde-moldeetan Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza agerrarazteko eta Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzari deialdia egiteko kirol-gertakariarekin loturiko ekitaldi publikoetan ager dadin, salbu eta ekitaldiaren ondoren ematen bada diru-laguntza, orduan gorabehera horren berri jaso beharko baitute laguntza ematen duen ebazpenaren jakinarazpenak sortarazitako dokumentazioan.

f) Eskaria baloratzeko aurkeztu nahi den gainerako dokumentazioa (6).

3.- Ordainketarako dokumentazioa. IV. edo V. eranskinak.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOARI BURUZKO ARGIBIDEAK

(1) Pertsonari edo entitateari buruzko agiriak:

Pertsona edo entitate berak diru-laguntza eskaera bat baino gehiago egiten badu, pertsonari edo entitateari buruzko dokumentazioa eskabide batekin bakarrik aurkeztu beharko du.

(2) 1. atalean eskatutako dokumentazioaren ordezko aitorpena:

Entitate eskatzaileari buruz 1. atalean eskatutako dokumentazioa jadanik administrazioaren esku baldin badago, ez da berriz ere aurkeztu behar, hala ezarrita baitago Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35.f) artikuluan.

Kasu horretan, dokumentazio hori indarrean dagoela adierazten duen idazki bat aurkeztuko da eta, bertan, hauek ere zehaztuko dira: EAEko Administrazioko zein organo edo bulegotan aurkeztu zen eta noiz –edo, hala badagokio, zeinek eman zuen eta noiz–.

Halere, agiriei dagokien prozedura amaitu zenetik hiru urte baino gehiago igaro ez badira bakarrik erabili ahal izango da bide hau.

(3) Zerga eta Segurantza Sozialeko zorrak kitatuta dituela egiaztatzen duen ziurtagiria:

Gehienez, eskabidea aurkeztu baino hiru hilabete lehenagokoa izan beharko du, eta horretarako eskumenak dituen erakundeak emana. Dena den, dokumentazio hori dela-eta jardunbideak irauten duen bitartean eskatzen zaizkion ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu onuradunak.

Eskaera egin duen pertsona fisikoak edo entitateak lurralde batean baino gehiagotan jarduten baldin badu, helbide fiskala duen lurraldeetako bakoitzari dagokion organoak egindako ziurtagiria aurkeztu beharko du zerga-zorrak kitatuta dituela egiaztatzeko.

(4) Aurrekontua:

Orekatua izango da, hots, gastuak berdin diru-sarrerak, eta diru-sarreren atalean Kultura Sailari eskatutako kopurua zehaztu beharko da.

(5) Xede berberaz aurkeztutako beste diru-laguntzetarako eskabideak:

Beste edozein erakunde pribatu nahiz publikori xede berberaz eskatutako diru-laguntza guztiak zehaztu behar dira eta baita diru-laguntza horien egoeraren berri eman ere (ukatua, erantzunaren zain ala emana dagoen eta, hala badagokio, zenbatekoa den).

Beste erakunde pribatuei zein publikoei eskatutako diru-laguntzen zenbatekoen edota egoeraren edozein aldaketa jakinaraziko zaio diru-laguntzen kudeaketaz arduratzen den zuzendaritzari eta baita eskabidearekin batera aurkeztutako jardueran edo honen aurrekontuan eragina izan dezakeen aldaketaren bat egin ahal izateko baimena eskatu ere. Bi egoera horietako edozein jakinarazi bekarkako zaio diru-laguntzen kudeaketaz arduratzen den zuzendaritzari, kasuan kasuko espedientea ebatzi baino lehenagoko administrazio izapidetzearen edozein unetan.

(6) Eskabidea baloratzeko aurkeztu nahi den dokumentazio osagarria:

Jarduera hobeto baloratzeko, pertsona edo entitate eskatzaileak egokitzat jotzen duen beste edozein dokumentazio aurkez dezake.

II. ERANSKINA / *ANEXO II*

JARDUERARI BURUZKO DATUAK / *DATOS DE LA ACTIVIDAD*

Lehiaketa eremua (kontinente bateko edo gehiagoko kirolariek parte hartzen duten azaldu) *Ámbito competitivo (explicar si participan deportistas de uno o más continentes)*
....

Lehiaketan sartzeko modua (aurresailkapenik dagoen ala ez azaldu; aurreko txandarik badago, horien emaitzak egiaztatu) *Sistema de acceso a la competición (explicar si existe un sistema clasificatorio previo o no; en caso de existir rondas previas, acreditar los resultados de las mismas)*
....

Lehiaketa-egutegia, eskabidea egiteko unean publikoa bada. Bestela, argitara eman orduko bidaliko da egutegi hori Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzara *(Calendario de la competición, si fuera público en el momento de presentar la solicitud. Si no fuera así, se remitirá a la Dirección de Deportes en cuanto sea publicado)*
....

Programa olinpikoan proba sartuta dagoen / *Inclusión de la prueba en el programa olímpico*	
Proba olinpikoa / *Prueba olímpica*	☐
C.I.O.k onartutako proba ez-olinpikoa / *Prueba no olímpica reconocida por el C.I.O.*	☐
C.I.O.k onartu gabeko proba ez-olinpikoa / *Prueba no olímpica no reconocida por el C.I.O*	☐

Lehiaketaren maila edo kategoria / *Rango o categoría de la competición*
....

Azken 10 urteotan nazioartean parte hartutako urteak / *Años de participación internacional en los últimos 10 años*
.....
.....
.....
.....

Eskatzaileak lehiaketara eramango duen pertsona kopurua / *Número de deportistas y personal técnico desplazados*
Kirolariak/*Deportistas*: .....
Teknikariak/*Técnicos/as*: .....
Guztira/*Total*: .....

Lehiaketa-modua / *Sistema de competición*
Jardunaldi-kopurua / *Número de jornadas*: .....
Jardunaldiak non izango diren / *Lugar de celebración de las jornadas*: .....
.....
.....
.....

Interesgarritzat jotzen diren jarduerari buruzko beste datu batzuk / *Otros datos de la actividad que consideren de interés*
.....
.....
.....

III. ERANSKINA / *ANEXO III*

AURREKONTUA/*PRESUPUESTO* (1)

GASTUAK/*GASTOS*	
KONTZEPTUA/*CONCEPTO*	ZENBATEKOA/*IMPORTE*
Garraio-gastuak / *Gastos de desplazamiento*	
Toki-aldatzeak / mugiturako petsona kop. *Explicar lugar/es de desplazamiento / n.º de personas desplazadas*	
.....	.....
.....	.....
.....	.....
Ostatu-gastuak / *Gastos de alojamiento*	
Toki-aldatzeak / mugiturako petsona kop. / egun kop. E*xplicar lugar/es de desplazamiento / n.º de personas desplazadas / n.º días*	
.....	.....
.....	.....
.....	.....
Bestelako gastuak / *Otros gastos*	
.....	.....
.....	.....
.....	.....
.....	.....
Guztira/*Total*	

DIRU-SARRERAK/*INGRESOS*		
KONTZEPTUA/*CONCEPTO*	ZENBATEKOA/*IMPORTE*	EGOERA/*ESTADO*
Eskatzailearen ekarpena / *Aportación del solicitante*		
.....	.....	.....
Ente publikoen ekarpenak / *Aportaciones de entes públicos*		
.....	.....	.....
.....	.....	.....
.....	.....	.....
Ente pribatuen ekarpenak / *Aportaciones de entidades privadas*		
.....	.....	.....
.....	.....	.....
.....	.....	.....
Bestelako sarrerak / *Otros ingresos*		
.....	.....	.....
.....	.....	.....
.....	.....	.....
Guztira/*Total*		

ESKATUTAKO DIRU-LAGUNTZA / *SUBVENCIÓN SOLICITADA* .....

(1) Aurrekontuak orekatua behar du izan, hots, gastuak berdin diru-sarrerak (eskatutako diru-laguntza barne)
El presupuesto debe ser equilibrado, es decir, gastos igual a ingresos (incluida la subvención solicitada)

IV. ERANSKINA / *ANEXO IV*

DATUEN ALTA/DOAKION HIRUGARRENA / *ALTA DE DATOS/TERCERO INTERESADO*

A HIRUGARRENAREN EZAGUPENERAKO DATUAK
DATOS IDENTIFICACIÓN DEL TERCERO

(1) NAN/IFK
DNI/CIF .....

(2) Bi abizenak eta izena/ Sozietatearen izena
Dos apellidos y nombre / Razón Social .....

Helbidea
Domicilio: .....

Posta kodea
Código postal .....

Herria
Población .....

Lurraldea
Provincia .....

Herrialdea
País .....

B BANKUAREN DATUAK
DATOS BANCARIOS

(1) Bankua
Banco ☐☐☐☐

(2) Agentzia
Agencia ☐☐☐☐

(3) KD
DC ☐☐

K/ korrontea
C/ Corriente ☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐

(4) Jabea
Titular .....

OHARRA: kontu korrontearen jabeak doakion hirugarrena bera behar du izan.
N*OTA: el titular de la cuenta bancaria tiene que ser el mismo que el tercero interesado*.

C	D	E
Bankuaren adostasuna *Conforme banco* Sinadura eta zigilua *Sello y firma* (D)	Hirugarrenaren adostasuna *Conforme tercero* Sinadura eta zigilua *Sello y firma* (E)	Sail edo Erakundearen onespena *V.º B.º Dpto. u Organismo* Baimendutako sinadura eta zigilua *Sello y firma autorizada*

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Ekonomia eta Ogasun Sailak jakinarazten dizu, dokumentu/inprimaki/formulario honen bitartez jarri dituzun zure datu pertsonalak fitxategi automatizatu baten sartuko ditugula, ondoren, erabili ahal izateko.
Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara jo dezakezu: Ekonomia eta Ogasun Saileko Zerbitzu Zuzendaritza, Donostia kalea, 1; 01010 Vitoria-Gasteiz.

En cumplimiento de lo dispuesto de la Ley Orgánica 15/1999 de Protección de Datos de Carácter Personal, el Departamento de Economía y Hacienda, le informa que sus datos personales obtenidos mediante la cumplimentación de este documento/impreso/formulario, van a ser incorporados para su tramitación en un fichero.
Si lo desea, puede ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, previstos por la Ley, ante la Dirección de Servicios del Departamento de Economía y hacienda: calle Donostia-San Sebastián, 1; 01010 Vitoria-Gasteiz.

ESKAERA BETETZEKO ARGIBIDEAK

A: Pertsona fisiko edo juridikoa identifikatzeko datuak, ondoren adierazten denaren arabera.

1.- Pertsona fisikoak: nortasun agiri nazionalaren zenbakia, identifikazio fiskaleko zenbakia edo atzerritarren kasuan, pasaporte zenbakia.
Pertsona juridikoak: Identifikazio fiskaleko kodea.
2.- Pertsona fisikoak: izena eta bi abizen.
Pertsona juridikoak: izena edo helbide soziala.

B: Banku-datuak

1.- Bankuaren kode eta izena.
2.- Agentziaren kode eta izena.
3.- Titularrak bankuan duen kontuaren kontrol digitua eta zenbakia adieraziko da.
4.- Izena eta bi abizenak, pertsona fisikoen kasuan, eta izena edo helbide soziala, pertsona juridikoen kasuan.

C: Bankuaren sinadura eta zigilua bankuaren datuak ziurtatzeko.

D: Doakion hirugarrenaren sinadura eta zigilua, agirian azaltzen diren datuak zuzenak direla ziurtatzeko.

E: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak betetzeko.

DOKUMENTAZIO EUSKARRIA

Nortasun agiri nazionalaren edo atzerritarren kasuan pasaportearen, edo identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia erantsiko da.

INSTRUCCIONES DE CUMPLIMENTACIÓN

A: Datos identificativos de la persona física o jurídica según indican a continuación.

1.- Personas físicas: número de documento nacional de identidad, número de identificación fiscal o número de pasaporte si se trata de extranjeros.
Personas jurídicas: código de identificación fiscal.
2.- Personas físicas: nombre y dos apellidos
Personas jurídicas: nombre o razón social.

B: Datos bancarios.

1.- Código y denominación de la entidad bancaria.
2.- Código y denominación de la agencia.
3.- Dígito de control de la cuenta y el número de cuenta del titular en la entidad bancaria.
4.- Nombre y dos apellidos en el caso de personas físicas, y nombre o razón social en el caso de personas jurídicas.

C: Firma y sello de la entidad bancaria certificando los datos bancarios.

D: Firma y sello del tercero interesado, certificando la corrección de los datos que figuran en el documento.

E: A rellenar por la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

DOCUMENTACIÓN SOPORTE

Se adjuntará fotocopia del documento nacional de identidad, pasaporte en caso de extranjeros o tarjeta de identificación fiscal.

V. ERANSKINA / *ANEXO V*

HIRUGARRENAREN DATUETAN ALDAKETA(K) SARTZEKO ESKABIDE-ORRIA (*)
SOLICITUD MODIFICACIÓN EN LOS DATOS DEL TERCERO (*)

HIRUGARRENA IDENTIFIKATZEKO DATUAK / *DATOS IDENTIFICACIÓN DEL TERCERO*

IFZ edo NAN / *NIF o DNI*: .....

3.aren kodigoa / *Código del tercero* (1): .....

Entitatearen izendapena edo izen-deiturak / *Denominación de la entidad o nombre y apellidos* .....

.....

ALDAKETA / *MODIFICACIÓN* (2)

A) HELBIDERATZE-DATUAK / *DATOS DE DOMICILIACIÓN*

Helbidea
Domicilio .....

Posta-Kodea
Código postal.....

Udala
Localidad .....

Lurraldea
Provincia .....

B) BANKUAREN DATUAK / *DATOS BANCARIOS* (3)

Banketxea edo aurrezki entitatea
Banco o entidad bancaria ..... ☐☐☐☐

Agentzia
Agencia ..... ☐☐☐☐

KD
DC ..... ☐☐

Kontu zkia.
N.º cuenta ..... ☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐

Jabea
Titular .....

Data/*Fecha*

Sinadura/*Firma*

(*) Eusko Jaurlaritzatik inoiz diru-laguntzaren bat jaso badute ere, helbideratze edota banketxeko datuetan aldaketaren bat sartu nahi dutenek bete beharreko inprimakia */ Impreso a cumplimentar por aquellos peticionarios que, habiendo recibido alguna subvención del Gobierno Vasco, deseen introducir alguna modificación en los datos de domiciliación y/o en los bancarios.*

Argibideak/*Observaciones*:

(1) Administrazioak bete beharrekoa / *A rellenar por la Administración.*
(2) Aldaturiko kontzeptua(k) baino ez da/dira adierazi behar / *Tan sólo debe(n) cumplimentarse el/los concepto(s) a modificar.*
(3) Kasu honetan, honako domumentazio osagarri hau erantsi beharko zaio eskabide-orriari / *En este caso deberá adjuntarse a la solicitud la siguiente documentación*:
   a) Proposatzen den aldaketarako arrazoia / *Razón que motiva el cambio*.
   b) Ordainketarako jakinarazitako kontu korrontea egon badagoela eta beraren titularra adierazitakoa bera dela ziurtatzen dituen banku edo aurrezki-entitate batek emandako agiria / *Documento expedido por una entidad bancaria o de ahorro que certifique la existencia de cuenta y la titularidad de la misma.*

OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILEKO KONTROL EKONOMIKOKO BULEGOKO KONTABILITATE ZERBITZUA
SERVICIO DE CONTABILIDAD DE LA OFICINA DE CONTROL ECONÓMICO DEL DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

VI. ERANSKINA / *ANEXO VI*

ZINPEKO DEKLARAZIOA / *DECLARACIÓN JURADA*

Izen abizenak / *Nombre y apellidos* .....

.....

NAN/*DNI* .....

NIRE ARDURAPEAN, ONDORENGOA ADIERAZTEN DUT / *DECLARO BAJO MI RESPONSABILIDAD*:

Ordezkatzen dudan erakundeak ez duela zigor administratibo edo penalik laguntza publikoak lortzeko, ezta ere horretarako gaitasuna kentzen dion legezko debekurik Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean eta aplikagarri diren gainontzekotan jarraiki.

Que la entidad que represento no se encuentra sancionada penal ni administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni se halla incursa en prohibición legal alguna que la inhabilite para ello, en virtud de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y demás legislación aplicable.

Izenpea/*Firma*

Eskabidea izenpetzen duenak eta eskaera egiten duenak pertsona bera izan beharko du, eta entitatearen legezko ordezkaria izan.
El firmante de la solicitud habrá de coincidir con el solicitante de la misma que deberá ser quien ostente la representación legal de la entidad.